

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Primark lokal berriaren irekiera-ekitaldian izan da La Morean

Ehun-gaiak saltzen dituen denda 138 pertsonak egiten dute lan

Miércoles, 05 de septiembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina [Primark](#) Irlandako enpresaren lokal berriaren irekiera-ekitaldian izan da gaur eguerdian La Moreako merkataritza-gunean, Cordovilla-n (Galar). Ehungintza-sektorean espezializatutako dendak 138 lanpostu berri sortu ditu Iruñerrian.

Barcina Lehendakariak azpimarratu du "jarduera ekonomikoaren adibidea dela, enplegua eta aberastasuna sortzen dituelako, baina baita elkartasunarena ere; izan ere, irekiera dela eta, 10.000 euroko txeke bat bideratu du Nafarroako Arantza Bifido eta Hidrozefalia Elkarterako".

Zinta Barcina Lehendakariak moztu du eta, harekin batera, ekitaldian izan dira: Espainiako Primark-ko zuzendari nagusi José Luis Martínez de Larramendi eta Galarko Zendeako alkate Cecilio Lusarreta

Ekitaldian izan dira, gainera, Primark-eko administrazio-kontseiluko kide Breege O'Donoghue; Espainiako E. Leclerc-eko lehendakari Patrick Rigault eta Morea Inversiones-ko administrazio-kontseiluko lehendakari Catherine Rigault.

2.500 metro koadroko merkataritza-azalera duen denda bi solairutan banatzen da, eta bost milioi euro inguruko inbertsioa eskatu du, alde batetik, denda eraikitzeko obren artean (merkataritza-gunearen kargu izan dira), eta bestetik, barneko egokitzapena dela eta, enpresa irlandarrak egin duena.

Primark-ek 240 denda ditu Espainian, Portugalen, Irlandan,



Barcina Lehendakariaren agerraldia Primark-en inaugurazioan.



Barcina Lehendakaria, Martínez de Larramendi (ezkerrean) eta Lusarreta (eskuinean) alboan dituela, zinta mozteko unean.

Inglaterran, Holandan, Belgikan eta Alemanian banatuta. Iruñekoa Espainiako hogeita zortzigarrena da.